

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 832/2023 Foru Agindua, abenduaren 22koa. Aldatzea abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredia, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarrerren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinaren, jarduera ekonomikoen eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T eredia ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko

Zenbait aldaketa egiten dira abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduan, zeinaren bidez onesten baita 190 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergako atxikipen eta konturako sarrerren urteko laburpenaren aitortzenaren (lanaren eta jarduera ekonomikoen etekinak, sarietak eta ondare-irabazi eta errenta-egozketa jakin batzuk), batez ere argiago egiteko helburuaz eta gainerako zerga-administrazioekin informazio truke egokia errazteko, eta, ondorioz, zerga-kudeaketa hobetzeko.

Horrela, foru agindu honek erabat integraturik arautzen du orain arte indarrean dagoen eta 190 ereduaren informazio aitortzenari aplikatzeko zaion araudia.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, dogozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredia, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarrerren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak eta lanaren etekinaren, jarduera ekonomikoen eta sarietak ziurtagiriari buruzko 10-T eredia ordenadorez zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko.

Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 20ko 772/2021 Foru Aginduari:

Bat. "HARTUTAKO KOPURUAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatzen da, 78 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko 2 motako erregistroan (hartzaileen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA		
78	Alfabetikoa	<p>HARTUTAKO KOPURUAREN GAKOA</p> <p>Hartutako kopurua nolakoa den zehazten duen gako alfabetikoa jarri behar da; hona gakoaren zerrenda:</p> <table><tbody><tr><td>A</td><td>Lanaren etekinak. Besteren konturako langileak, oro har. Gako hau erabili behar da pertsona edo erakunde aitortzaileek lanaren etekin gisa dirutan zein gauzatan ordaindu dituzten kopuru guztiak zerrendatzeko, baldin eta atxikipenaren zenbatekoa zehazteko Zergaren Araudiko 83. eta 84. artikuluetan xedatutako prozedura orokorra erabili bada eta ordainketei B edo C gakoa ezarri behar ez bazaie.</td></tr></tbody></table>	A	Lanaren etekinak. Besteren konturako langileak, oro har. Gako hau erabili behar da pertsona edo erakunde aitortzaileek lanaren etekin gisa dirutan zein gauzatan ordaindu dituzten kopuru guztiak zerrendatzeko, baldin eta atxikipenaren zenbatekoa zehazteko Zergaren Araudiko 83. eta 84. artikuluetan xedatutako prozedura orokorra erabili bada eta ordainketei B edo C gakoa ezarri behar ez bazaie.
A	Lanaren etekinak. Besteren konturako langileak, oro har. Gako hau erabili behar da pertsona edo erakunde aitortzaileek lanaren etekin gisa dirutan zein gauzatan ordaindu dituzten kopuru guztiak zerrendatzeko, baldin eta atxikipenaren zenbatekoa zehazteko Zergaren Araudiko 83. eta 84. artikuluetan xedatutako prozedura orokorra erabili bada eta ordainketei B edo C gakoa ezarri behar ez bazaie.			

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
78	Alfabetikoa	<p>Beraz, gako honetan bilduko dira, halaber, enplegatzailearekin noizean behin eta egunero aritzearen ondoriozko ordainsariak giza lan edo eguneko lansaritan jasotzen dituzten eskulangileen sarrerak, bai eta lanaren etekinak menpeko lan harremanen ondorioz jasotzen dituzten hartzaielenak eta urtebetetik beherako lan kontratu edo erlazioa duten hartzaielenak ere.</p> <p>Era berean, langilearen enplegatzaileak lanerako ezintasuna dela-eta zuzenean ordaindutako hartukizunak ere gako horretan adieraziko dira, Gizarte Segurantzarekin den lankidetzak akordioarekin bat etorritik, lankidetzak hori nahitaezkoa edo borondatezkoa izan. Bestelakoetan, B gakoan, 01 azpigakoan adieraziko ditu erakunde ordaintzaileak lanerako ezintasunaren ondorio diren hartukizun horiek.</p> <p>Salbuespena: lanaren etekin batzuk ez dira sartu behar 190 erudian, hain zuzen ere gauzatan jasotzen diren ordainsariak, baldin eta Zergaren Araudiko 78.j) artikulua araberak ez badago konturako sarrerarik egin beharrik (pentsio-planen, enpresen gizarte aurreikuspeneko planen eta gizarte aurreikuspeneko mutualitateen sustatzaileek eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeetako bazkide babesleek ordaindutako kontribuzioak, bai eta langilearen erabaki baten ondoriozko gizarte aurreikuspeneko sistema horiei egindako ekarpenak badira ere, zerga oinarri orokorra murrizten dutenak). Nolanahi ere, kontzeptu horien datuak 345 erudian adierazi behar dira.</p> <p>Gako horrekin lotuko dira PFEZetik salbuetsita ez dauden ordainsariak, langile lekualdatuen araubide bereziaren pean (PFEZaren Foru Arauaren 56. bis artikuluan arautua) dauden zergadunek hartuak.</p>
		<p>B</p> <p>Pentsiodunak eta hartzeko pasiboan eta Zergaren Foru Aginduko 18.a) artikuluan xedatutako gainerako prestazioen hartzaielenak.</p> <p>Gako honekin sartu behar dira Gizarte Segurantzako araubide publikoen eta klase pasiboan barne dauden pensio eta sarrera pasiboak dagozkien kobrantzak, PFEZren kargatik salbuetsita ez badaude, bai eta Zergaren Foru Arauko 18.a) artikuluan aipatzen diren gainerako prestazioak ere, diruzkoak zein gauzazkoak.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>
		<p>C</p> <p>Langabezia prestazioak eta laguntzak.</p> <p>Gako honekin langabeziagatik kobratutako prestazioak eta laguntzak azaldu behar dira, ondoko hauek izan ezik: ordainketa bakarreko modalitatean kontzeptu honengatik ordaindutako prestazioak.</p>
		<p>E</p> <p>Kontseilariak eta administratzaileak.</p> <p>Gako honekin administrazio kontseilu edo batzarretako administratzaile edo kide diren pertsona fisikoei dirutan zein gauzatan ordaindutako ordainsariak agertu behar dira, bai eta gainerako ordezkaritza organoetako kideei ordaindutakoak ere.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>
		<p>F</p> <p>Ikastaroak, hitzaldiak, mintegiak eta antzekoak, eta obra literarioak, artelanak edo lan zientifikoak.</p> <p>Gako honekin agertu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak ikastaro, hitzaldi, solasaldi, mintegi eta antzekoetan parte hartzeagatik edo literatura, arte edo zientzia lanak egiteagatik ordaindutako kopuruak, diruzkoak zein gauzazkoak.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>
		<p>G</p> <p>Jarduera ekonomikoaren etekinak: jarduera profesionalak.</p> <p>Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak jarduera ekonomiko profesionalen (Zergaren Araudiko 92. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak) kontraprestazio modura dirutan zein gauzatan ordaindutako kopuruak. Gako honetan sartuko dira, halaber, jabetza intelektualaren etekinak, bai eta irudia ustiatzeko eskubidearen lagapenaren etekinak ere, baldin eta hartzaielaerentzat beren lanbide jardueratik eratorritako etekinen kalifikazioa badute.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>
		<p>H</p> <p>Jarduera ekonomikoaren etekinak: nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako jarduerak eta zenbatespen objektiboaren araubidean dauden enpresa jarduerak, Zergaren Araudiko 92.6 artikuluan xedatutakoaren arabera atxikipena aplikatu behar zaienak.</p> <p>Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak ondoko jarduera ekonomikoaren kontraprestazio gisa dirutan zein gauzatan ordaindutako kopuruak:</p> <p>a) Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintzako jarduerak, Zergaren Araudiko 92. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan aipatzen direnak. Jarduera hauei dagokienez, ez dira zenbatuko dirulaguntza arruntak (kapitalekoak), ez eta kalte ordainak ere (egonez gero, 346 erudian aitortu behar dira).</p> <p>b) Zergaren Araudiko 92. artikuluko 6. paragrafoan ezartzen denaren arabera zenbatespen objektiboaren araubidean dauden jarduera ekonomikoak.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>
		<p>I</p> <p>Jarduera ekonomikoak. Zergaren Araudiko 77.2.b) artikuluan aipatzen diren etekinak.</p> <p>Gako honekin lotu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak jabetza intelektual edo industrialaren etekinengatik, laguntza teknikoaren prestazioagatik, ondasun higigarrien, negozioen edo meategien errentamenduagatik edo ondasun horien azpierrtamenduagatik ordaindutako diruzko edo gauzazko hartukizunak, bai eta irudi eskubidea ustiatzeko eskubidea lagatsetik eratorritakoak ere, baldin eta etekin horiek hartzaielaerentzat "G" gakoan sartu beharreko jarduera profesionaletatik eratorritakoez bestelako jarduera ekonomikoaren etekinen kalifikazioa badute.</p> <p>AZPIGAKOA eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.</p>

POSIZIOA	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
78	Alfabetikoa	J Iruadi eskubideak lagata eskuratutako errenten egozketa. Gako honekin sartu behar dira pertsona edo erakunde aitortzaileak egoitza Espainian ez duten pertsoneri eta erakundeei dirutan zein gauzatan ordaindutako kontraprestazioak, konturako sarrera egin beharra dakartenak. Gako honekin ezartzen diren kopuruetan, hartzailearen IFZren eremuan irudi eskubideak lagata eskuratutako errentak PFEZen zerga oinarriari egotzi behar dizkion pertsona fisiko egoiliarrena jarri behar da.
		K Sariak. Gako honekin identifikatu behar dira atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu behar zaizkien errenta hauek: Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren Araudiko 77.2.c) artikuluan aipatzen diren sariak, pertsona edo erakunde aitortzaileak dirutan zein gauzatan emandakoak jasotzaileak joko, lehiaketa, zozketa eta konbinazio aleatorioetan parte hartu ondoren, are atxikipen oinarria 300 euro baino gehiago ez izateagatik atxikipenik ez konturako sarrerarik egin beharrik sortzen ez duten sariak ere. Aldiz, ondoko hauek ez dira agertu behar gako honekin: loteria eta apustu jakin batzuen sarien gaineko karga berezia, azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergarenak, hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen duena, jasaten duten sariak, bai eta otsailaren 25eko 16/1977 Errege Lege Dekretuak, zorte, enbete edo zori jokoan eta apustuen alderdi penal, administratibo eta fiskalak arautzen dituenak, eta jokoaren gaineko Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauak ezartzen dutenaren itzalpean antolatutako jokoetan ematen diren sariak ere. AZPIGAKO eremuan zerrendatutakoetatik dagokion azpigakoa adieraziko da nahitaez.
		L Salbuetsitako errentak eta kargarik gabeko sariak. Gako honekin agertu behar dira Zergaren Araudiko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargatik salbuetsita dauden bidaia gastuetarako sariak eta diru kopuruak, bai eta PFEZetik salbuetsitako lanaren errentak eta Zergari buruzko Foru Arauko 9. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden jarduera ekonomikoaren etekinak ere. Bidaia gastuetarako dieta eta diru kopuruaren kasuetan, eta salbuespenak zenbateko muga daukan kasuetan, pertsona edo erakunde aitortzaileak legez edo arauz ezarritako muga baino gehiago ordaindu badu, soberakina lehen aipatutako gakoarekin agertu behar da (bidezkoa bada, baita azpigakoarekin ere). AZPIGAKO eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez.
		Z Lan etekinak, akzio, partaidetza edo edozein motatako Inbertsio Funts Alternatiboetako bestelako eskubide ekonomiko berezietatik eratorritakoak.

Bi. "AZPIGAKOA" eremuaren edukia aldatzen da, 79tik 80ra bitarteko posizioak dituen foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko 2 motako erregistroan (hartzailearen erregistroa), honela idatzita geratuko da:

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
79-80	Numerikoa	AZPIGAKOA B, E, F, G, H, I, K eta L gakoak dagozkien hartzeak izanik, kasuan kasuko hartzekoei dagokien azpigako numerikoa ere adieraziko da, ondoren zerrendatzen eta aipatzen diren gakoetako azpigakoen arabera. Ez da beteko eremu hori aipatutakoak bestelako gakoak dagozkien hartzeak. 190 ereduan agertu beharreko hartutako kopuru batzuk, aitortu berari ordainduak, gako edo azpigako desberdinetakoak badira, gako (eta behar denean azpigako) bereko kopuruaren datu guztiak erregistro batean ezarri behar dira, eta behar beste erregistro bete behar dira.
		B gakoari dagozkien hartzeak erabili beharreko azpigakoak:
		01 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro arruntagatik hartzen diren GSINen eta haren ordeko erakundearen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira. Azpigako horrekin adieraziko dira, halaber, Gizarte Segurantzaren edo Klase Pasiboen herri araubideetakoaren batek langileari lan ezintasuna dela-eta zuzenean ordaintzekoak edo Gizarte Segurantzaren mutua laguntzaileak ordaintzekoak. Hartukizun horiek A gakoan adieraziko dira, baldin eta, Gizarte Segurantzarekin den lankidetzak akordioaren ondorioz, zuzenean ordaintzen baditu enplegatzaileak.
		03 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta B gakoak gainerako azpigakoetan zerrendatutako bestelako hartu beharreko prestazioak badira.
		10 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta 55 urtetik gorakoaren erabateko edo zati ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordeko erakundearen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.
		11 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta 55 urtetik beherakoaren erabateko edo zati ezintasunagatik jasotzen diren GSINen eta haren ordeko erakundearen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.
		12 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro partzialagatik hartzen diren GSINen eta haren ordeko erakundearen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.
		13 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiro aurreratuagatik hartzen diren GSINen eta haren ordeko erakundearen prestazioak eta klase pasiboen araubidekoak badira.

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA		
79-80	Numerikoa	14	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta alargun pentsioagatik hartzen diren GSINen eta haren ordeko erakundeen prestazioak eta klase pasiboan araubidekoak badira.	
		20	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta borondatezko bajagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		21	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta erretiroagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		22	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta ezintasunagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		23	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta heriotzagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		24	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta mendetasunagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		25	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta lanik gabe luzaroen egoteagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		26	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta gaixotasun larriagatik BGAE-ek, PPeK eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuek ematen dituzten prestazioak badira.	
		27	Azpigako hori islatuko da COVID-19aren pandemiaren ondorioz gizarte aurreikuspen osagarriko eskubide kontsolidatuak erreskatatzen direnean.	
		E gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:		
		01	Azpigako hori adieraziko da, baldin eta kontseilaria edo administratzailea Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean badago besteren konturako langileekin berdinetara.	
		04	E gakoaren hartzeko guztietan azpigako hau adieraziko da, baldin eta 01 azpigakoaren pean zerrendatu beharrekoen bestelakoa bada.	
		F gakoa duten kopuruak zehazteko azpigakoak:		
		01	Zergaren Araudiko 14.1.g) artikuluan zehaztutako literatura, zientzia eta arte sariengatik jasotako kopuruak, Zergaren kargatik salbuetsita ez daudenak.	
		02	Ikastaroak, hitzaldiak, solasaldiak eta antzekoak ematek eratorritako etekinak.	
		03	Ezarritako atxikipen tasa orokorra aplikatu behar zaien literatura, arte edo zientzia lanak egitetik eratorritako etekinak.	
		04	Atxikipen tasa murriztua aplikatu behar zaien literatura, arte edo zientzia lanak egitetik eratorritako etekinak.	
		G gakoa duten kopuruak zehazteko azpigakoak:		
		01	Zergaren Araudiko 92.1 artikuluan zehaztutako atxikipen tasa orokorra aplikatu ahal zaien etekinak.	
		02	Udalen zerga biltzaileei, merkataritza kolaboratzaileen edo agenteen zerbitzuak erabiltzen dituzten aseguru agenteei eta aseguru artekariei, eta Estatuko Loteria eta Apustuen Enpresa-Entitate Publikoko lurralde delegatuei ordaindutako etekinatarako aurrean aipatutako Araudiko artikuluan ezarritako atxikipen tasa aplikatu behar zaien kopuruak.	
		03	Jarduera profesionaleri ekiten dieten zergadunei jardueraren hasierako zergaldian eta hurrengo bietan ordaintzen zaizkien etekinatarako Zergaren Araudiko 92.1 artikuluan ezarritako atxikipen tasa murriztua aplikatu behar zaien etekinak.	
		04	Azpigako hau jarriko da Zergaren Arautegiko 92.1 artikuluko 4. paragrafoko 4. gidoian ezarritako atxikipen tasa espezifikoak aplikatu behar zaien hartukizunak direnean.	
		05	Jabetza intelektualetik eratorritako etekinak, zeinei tasa orokorra aplikatu behar baitzaie.	
		06	Jabetza intelektualetik eratorritako etekinak, zeinei atxikipen tasa murriztua aplikatu behar baitzaie.	
		07	Egile eskubideen ustiapenaren lagapenetik eratorritako konturako aurrerakinak, baldin eta aurrerakin horiek jardueraren profesionalen etekintzat jo eta hainbat urtetan zehar sortzen badira.	
		08	Irudia ustiatzeko eskubidea lagaztetik eratorritako etekinak. Azpigako hau jarriko da baldin eta lagapen horrengatik ordaindutako hartukizunek hartzailarentzat bere lanbide jardueratik eratorritako etekinen kalifikazioa badu.	
		H gakoa duten kopuruak zehazteko azpigakoak:		
		01	Zergaren Araudiko 92.4 artikuluan zehaztutako atxikipen tasa orokorra aplikatu ahal zaien etekinak.	
		02	Txerri gizentzeko eta hegazti hazkuntzako abeltzaintza jardueren kontraprestazio diren etekinatarako Zergaren Araudiko 92.4 artikuluan ezarritako atxikipen tasa berezia aplikatzen zaien etekinak.	

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA	
79-80	Numerikoa	03 Zergaren Araudiko 92.5 artikuluan aipatzen diren basogintzako jardueren kontraprestazioak.	
		04 Zergaren Araudiko 92.6 artikuluan aipatzen diren zenbatespen objektiboaren araubideko jarduera ekonomikoaren kontraprestazioak.	
		I gakoa duten kopuruak zehazteko azpigakoak:	
		01 Irudi eskubidea ustiatzeko eskubidea lagata sortutako etekinak, pertsona edo erakunde aitortzaileak ordaindutakoak.	
		02 Azpigako hau jarriko da baldin eta jabetza intelektualetik eratorritako hartukizunak badira, zeinei ezarritako atxikipen tasa orokorra aplikatu behar baitzaie.	
		03 Azpigako hau jasoko da baldin eta Zergaren Arautegiaren 98.2 artikuluan aipatzen den beste edozein kontzepturengatik pertsona edo erakunde aitortzaileak ordaindutako hartukizunak badira.	
		K gakoari dagozkion hartzeoetan erabili beharreko azpigakoak:	
		01 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta hartzeoak publizitate asmorik ez duten joko, zozketa edo konbinazio ausazkoetan parte hartzearen ondorio diren sariak badira. Horiek guztiek maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen, jokia arautzen duenaren, 3.a) artikuluan "joko" kontzepturako zehaztutakoak bete beharko dituzte. Haren ezaugarri nagusia da dirua edo besten zenbait ondasun arriskuan jartzen direla halako saria edo irabazia lortzeko aukeraren truke. Sari hauen zenbateko osoa aitortu behar da; hala ere, hartzaileak eskubidea dauka zenbatekotik kentzeko zergaldi berean jokoan izandako galerak, zergaren Foru Arauak 43e) artikuluan ezartzen duenarekin bat etorri.	
		03 Azpigako hori adieraziko da, baldin eta hartzeoak publizitate asmoa duten lehiaketa edo konbinazio ausazkoetan parte hartzearen ondorio diren sariak badira eta haietan parte hartzeagatik ezer ordaindu behar ez bada; alegia, maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen, jokia arautzen duenaren, 3.a) artikuluan "joko" kontzepturako zehaztutakoekin zerikusirik ez badu. Horiek horrela, horien artean sartuko dira komunikabideetan egindako programen eta 13/2011 Legearen 3.i) artikuluan publizitate eta sustapen asmoa duten konbinazio ausazkoen ondorio diren sariak.	
		L gakoa duten kopuruak zehazteko azpigakoak:	
		01 Dietak eta bidaia gastuetarako kopuruak, Zergaren Araudiko 13. artikuluan ezarritakoaren arabera kargatik salbuetsita daudenak.	
		02 Terrorismo ekintzengatik laguntza publikoak, Zergari buruzko Foru Arauak 9.2 artikuluan aipatzen dituenak.	
		03 Giza immunoeskasiaren birusak eragindakoek jasotako laguntzak, zergari buruzko foru arauaren 9. artikuluko 14. puntuan aipatutakoak.	
		04 1936-1939ko gerra zibilean edo horren ondorioz jasandako lesio edo mutilazioengatik jasotzen diren pentsioak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 11. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		05 Langilea kaleratzeagatik edo lana utzarazteagatik jasotako kalte ordainak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 5. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 7. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		06 Erabateko ezintasun iraunkorragatik edo ezintasun handiagatik jasotzen diren pentsioak, hain zuzen ere Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 3. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		07 Klase pasiboaren araubideko ezereztasun edo ezintasun iraunkorragatik jasotzen diren pentsioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen dituenak.	
		08 PFEZaren Foru Arauaren 9. artikuluan 12. puntuan ezarritakoaren arabera salbuetsita dauden prestazio, pentsio eta hartzeko pasiboak; ez dira azpigako honetan sartuko salbuetsitako adingabearen jaiotzagatik eta zaintzagatik prestazioak eta bularreko haurraren zaintza eta erantzunkidetasunagatik prestazioak, 27. azpigakoan idatzi behar baitira.	
		09 Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 10. paragrafoan aipatzen duen pertsonen harrera dela eta erakunde publikoek emandako prestazio ekonomikoak.	
		10 Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 9. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita dauden bekak.	
		11 Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 8. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 8. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita dauden literatura, zientzia eta arte sariak.	
		12 Goi mailako kirolarientzako dirulaguntzak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 15. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 9. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		13 Ordainketa bakarrean jasotzen diren langabezia prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 13. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		14 Nazioarteko bake misioetan edo gizaldeko misioetan parte hartzeagatik ordaindutako aparteko haborokinak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 16. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 10. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		15 Atzerrian egindako lanengatik jasotako etekinak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 17. paragrafoan eta Zergaren Araudiak 11. artikuluan ezartzen dutenaren arabera salbuetsita daudenak.	
		16 Hilobiratze edo ehorzketagatik jasotako prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 22. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.	

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUAREN AZALPENA
17		Osasun sistema publikoan tratamendua jasotzearen ondorioz C hepatitis garatu duten pertsonentzako dirulaguntzak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. Artikuluko 14. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
18		Pertsona ezinduek beraien alde eratutako gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenen ondorioz errenta gisa eskuratutako prestazioak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 25. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
19		Beregintasan pertsonala sustatzeko eta mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen laguntzeko legeak mendekotasun egoeran daudenak etxean bertan zaintzeko xedatutako prestazio ekonomikoak, Zergari buruzko Foru Arauak 9. artikuluko 26. paragrafoan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
20		Jaiotzarekin, adopzioarekin, harrerarekin edo adingabeko seme-alabak zaintzarekin lotutako familia prestazioak eta laguntzak.
22		Sektore publikoek emandako dirulaguntzak, PFEZaren Foru Arauaren 9. artikuluan 27. zenbakian eta zergaren arautegiaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera salbuetsitatzat jotzen direnak; ez dira sartuko administrazio publikoek gizarteratzeko gutxieneko errenta gisa ezarritako prestazio ekonomikoak, horiek 28. azpigakoan idatzi behar baitira.
23		Honako bi testu hauen ondoriozko laguntzak: 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, babes integraleko neurri buruzkoa; Agindua, 2007ko azaroaren 29koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuarena, genero indarkeriaren biktima diren emakumei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena (dirulaguntza horiek aurrean aipatutako abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoko 27. artikuluan ezartzen dira), eta lurraldeko herri administrazioek emandako laguntzak, baldin eta abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoren helburu bera badute eta, Zergaren Foru Arauaren 9.32 artikuluan xedatutakoarekin bat etorri, salbuetsita badaude.
24		Gauzako lan etekintzat jotzen ez diren eta zergaren foru arauko 17.2 artikuluan araututa dauden lan errentak.
27		Adingabearen jaiotzagatiko eta zaintzagatiko prestazioak eta bularreko haurren zaintza eta erantzunkidetasunagatikoak, PFEZetik salbuetsiak direnak.
28		Administrazio publikoek gizarteratzeko gutxieneko errenta gisa ezarritako prestazio ekonomikoak, bizirauteko baliabide ekonomikoak bermatzeko halakorik ez duten pertsonen; ez dira azpigako honetan sartuko salbuetsitako gainerako laguntzak, 22. azpigakoan idatzi behar baitira.
29		Bizitzeko gutxieneko diru sarrera gisa ezarritako prestazio ekonomikoak, maiatzaren 29ko 20/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoari jarraituz jasoak.
35		Lanaren etekin salbuetsiak, langile lekualdatuen araubide bereziaren pean (PFEZaren Foru Arauaren 56. bis artikuluan arautua) dauden zergadunek hartuak. Azpigako honetan jarri behar da lan harremanaren ondoriozko etekin osoei %30 aplikatuta ateratzen den zerbatekoa. Etekin osoen barruan sartu behar dira jasotako hartukizunak eta enplegu-emaileak ordaindutako gastuak, joan-etorrien ondorioz sortuak badira.
36		Enplegu-emaileak ordaindutako gastuak, joan-etorrien ondorioz sortuak (etekin osoen % 20ko mugaraino). Azpigako honetan sartu behar da enplegu-emaileak ordaindutako gastuen zerbatekoa, langile lekualdatuentzako araubide bereziaren pean (PFEZaren Foru Arauaren 56. bis artikulua) dauden zergadunen lekualdatzearen ondorioz sortuak badira. Etekin osoen %20 jarri behar da, enplegu-emaileak ordaindutako gastuen zerbatekoa handiagoa baldin bada.
41		Erabateko ezintasun iraunkor edo partzialagatik emandako prestazioak, Zergaren Foru Arauak 9.3 artikuluan ezartzen duenaren arabera salbuetsita daudenak.
42		COVID-19aren ondoriozko gaixotasun kontingentziagatiko prestazioak, aseguru erakundeek Unión Española de Entidades Aseguradoras y Reaseguradoras entitatearen bidez osasun langileentzat sinatutako doako aseguru kolektibotik eratorriak, bai eta aseguru erakundeek osasun langileentzat sinatutako antzeko aseguru kolektiboetatik eratorritakoak ere.
44		Administrazio publikoek emandako dirulaguntzak edo aparteko laguntzak, salbuetsitatzat jo direnak abenduaren 1eko 14/2020 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuak 2. Bi artikuluan xedatutakoari jarraituz.
99		Salbuetsitako beste errenta batzuk. Azpigako honetan sartuko dira pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergatik salbuetsitako errentak, hain zuzen 190 ereduaren zerrendatu behar direnak eta aurreko azpigakoetan berariaz adierazitakoak bestelakoak direnak.

Hiru. 2025ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, "HARTUTAKO KOPURUAREN GAKOA" eremuaren edukia aldatzen da, 78 posizioa duena, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko 2 motako erregistroan (hartzaileen erregistroa), "C. Langabezia prestazioak eta laguntzak" gakoaren eremuaren azalpena aldatuz, honela idatzita geratuko dena:

"C Langabezia prestazioak eta laguntzak.

Gako honekin langabeziagatik kobratutako prestazioak eta laguntzak azaldu behar dira, ondoko hauek izan ezik: ordainketa bakarreko modalitatean kontzeptu honengatik ordaindutako prestazioak.

"AZPIGAKOA" eremuan ageri direnetatik behar dena jarri behar da nahitaez."

Lau. 2025ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, "AZPIGAKOA" eremuaren edukia aldatzen da, 79tik 80ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko 2 motako erregistroan (hartzaileen erregistroa), lehenengo paragrafoa aldatuz eta "C. Langabezia prestazioak eta laguntzak" gakoari dagozkion ordainketen barruan erabili beharreko azpigako berriak sortuz, honela idatzita geratuko dena:

"B, C, E, F, G, H, I, K eta L gakoari dagozkien hartzekoak izanik, kasuan kasuko hartzekoei dagozkien azpigako numerikoa ere adieraziko da, ondoren zerrendatzen eta aipatzen diren gakoetako azpigakoen arabera. Ez da beteko eremu hori aipatutakoez bestelako gakoari dagozkien hartzekoetan."

"C gakoari dagozkion hartzekoetan erabili beharreko azpigakoak:

01. Langabezia prestazioak. Azpigako honetan sartuko dira langabezia prestazioak, hain zuzen 190 ereduan zerrendatu behar direnak eta hurrengo azpigakoetan berariaz adierazitakoez bestelakoak direnak.

02. EEE langabezia prestazioak. Azpigako honetan jasoko dira enplegu erregulazioko espedienteak (EEE) arautzen dituen araudiari lotuta ordaindutako langabezia prestazioak.

03. ABEE langabezia prestazioak. Azpigako honetan jasoko dira aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteren bati (ABEE) lotuta ordaindutako langabezia prestazioak.

04. Langile autonomoek jarduerari uzteagatik jasotzen duten prestazioa. Azpigako honetan jasoko dira jarduera uzteagatik prestazioak (apartekoak edo ez), langile autonomoei ordaindutakoak.

05. Langabezia subsidioak. Azpigako honetan jasoko dira kotizazio gabeko modalitatean ordaindutako subsidioak, hala nola nahikoa ez kotizatzeagatik subsidioak, 45 edo 52 urtetik gorakoentzako subsidioak, itzulitako emigranteentzako subsidioak, langabeziagatik aparteko subsidioa eta kotizazio gabeko beste subsidio batzuk, gizarteratzeko errenta aktiboa izan ezik, hori hurrengo 06 azpigakoan islatuko baita.

06. Laneratzeko errenta aktiboa. Laguntza ekonomikoa, soldatapeko ordainsaririk gabeko enplegu politika aktiboen arloko ekintzak egiteari loturik ordaindua.

07. Beste prestazio, subsidio edo laguntza batzuk. Azpigako honetan jasoko dira aurreko azpigakoetan jaso behar ez diren prestazio, subsidio edo laguntza ordainduak."

Bost. "Estatuan, Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldudietan eta Nafarroako Foru Komunitatean sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak" eremua gehitzen da, 323tik 387ra bitarteko posizioak dituen, foru aginduaren II. eranskinean jasotzen diren 190 ereduko 2 motako erregistroan (hartzaileen erregistroa), honela geratzen da (aldi berean "ZURIUNEAK" eremuaren posizioak eguneratzen dira):

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA
323-387	Numerikoa	<p>ESTATUAN, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO FORU ALDUNDIETAN ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN SARTUTAKO ATXIKIPENAK ETA KONTURAKO SARRERAK</p> <p>Eremu hau E gako prestazioen kasuan bakarrik bete beharko da, baldin eta prestazio horiek administrazio kontseiluetako eta haien ordeko batzordeetako eta beste ordezkari organo batzuetako administrazioalek eta kideek jasotzen dituzten ordainsarietatik eratorzen badira. Lan etekin mota horien kasuan, erakunde ordaintzaileak, etekin horien gainean egindako atxikipenen eta konturako sarrera guztien zenbatekoak jartzeaz gain (zenbateko horiek lauki hauetan ageri dira: "Lan ezintasunetik eratorri ez diren diruzko hartukizunak" eremuko "Egindako atxikipenak" (95-107 posizioak) eta "Lan ezintasunetik eratorri ez diren gauzazko hartukizunak" eremuko "Egindako konturako sarrerak" (122-134 posizioak)), azpiekeru hauek beteko ditu, berezita identifikatzeko administrazio eskudun bakoitzari sartutako atxikipenak eta konturako sarrerak.</p> <p>Ondorio horietarako, E gakoaren barruan jarri beharreko mota horretako lan etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako diru sarrerak eragiketa bolumenaren proportzioan sartzen direnean, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7.bat.c) artikulua bigarren paragrafoan eta Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoan eta jasotakoaren arabera, aurreko bi laukien baturak ("Egindako atxikipenak" (95-107 posizioak) eta "Egindako konturako diru sarrerak" (122-134 posizioak)) bat etorri beharko du honako bost azpiekeru hauetan ageri diren zenbatekoen baturarekin:</p>
		<p>323-335</p> <p>ESTATUKO OGASUNA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoan eta abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onartutako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoan aipatutako etekinei dagozkien atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa adieraziko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:</p>
		<p>323-333</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
		<p>334-335</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
		<p>336-348</p> <p>NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak, zeina abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsi baitzen, 10.1.f) artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dituen etekinei dagozkien eta Nafarroako Foru Komunitatean benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:</p>
		<p>336-346</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
		<p>347-348</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
		<p>349-361</p> <p>ARABAKO FORU ALDUNDIA Eremu numerikoa, 13 posizioak. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi baitzen, 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dituen etekinei dagozkien eta Arabako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Hala ere, baldin eta aurreko paragrafoan aipatzen diren etekinei dagozkien atxikipenak eta konturako diru sarrerak Arabako Foru Aldundian baino ez badira sartu, azpiekeru hau soilik beteko da, eta bertan "Egindako atxikipenak" (95-107 posizioak) eta "Egindako konturako diru sarrerak" (122-134 posizioak) laukien batura jasoko da, aldez aurretik beteta, zeinak jasotzaile horri ordaindutako E gakoaren prestazioei baitagozkie. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:</p>
		<p>349-359</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>
		<p>360-361</p> <p>Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).</p>

POSIZIOAK	IZAERA	EREMUEN AZALPENA		
323-387	Numerikoa	362-374	GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA Eremu numerikoa, 13 posiziokoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi baitzen, 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dituen etekinei dagozkien eta Gipuzkoako Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:	
			362-372	Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).
			373-374	Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).
		375-387	BIZKAIKO FORU ALDUNDIA Eremu numerikoa, 13 posiziokoa. Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, zeina maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsi baitzen, 7. Bat.c) artikulua bigarren paragrafoan aipatzen dituen etekinei dagozkien eta Bizkaiko Foru Aldundian benetan sartu diren atxikipenen eta konturako sarreraren urteko zenbatekoa jarriko da, zeinurik gabe eta koma hamartarrik gabe. Gainerako kasuetan, eremu hori zeroz beteko da. Zenbatekoak euroetan eman behar dira. Eremu honetan bi atal daude:	
			375-385	Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati osoa adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).
386-387	Egindako atxikipenen eta konturako sarreraren zenbatekoaren zati hamartarra adieraziko da (edukirik ez badu, zeroak jarriko dira).			
388-500	—	ZURIUNEAK		

Azken xedapena

Foru agindu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren eragiketei aplikatuko zaie lehenengo aldiz, 2023. urteko informazioari dagokionez.

Hala ere, agindu honen artikulua bakarraren hirugarren eta laugarren apartatuak lehen aldiz aplikatuko dira 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren aitorten informatiboetan, 2025. urteari dagokion informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 22a

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria
MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA